

LEHEN MUNDU-GUDA KO OROITZAPENAK:

Liburutegirantz noa historiako lan bat egitera Nikole, Ander, Julen eta Imanolekin. Heltzen naizenean, Ander eta Julen ikusten ditut mahai batean eserita. Dakidanez, mutil lagunak dira baina gutxitan ikusi ditut elkarrekin.

- Kaixo Enea, zer moduz? - hasten da hizketan Ander.
- Ondo, ideia batzuk bururatu zaizkit proiekturako.
- Niri ere, besteak heltzen direnean komentatuko ditugu. - esaten du Julenek.

Nikole eta Imanol heldu direnean, gure ideia guztiak amankomunean jarri ditugu eta orain informazio bila hasi gara. Imanolek liburu bat hartu du eta mahai gainean utzi du denek ikusi dezagun.

- Uste dut liburu honek informazio baliagarria euki dezakeela. - esan du aukian jesaritzen den bitartean.

Azalean, "LEHEN MUNDU-GUDA" dago idatzita letra larriz. Besoa luzatu dut tapa irekitzeko eta bat-batean, gure gorputzak desagertzen hasi dira. Ez dut ezer sentitzen, ezta ikusten ere ez. Lurrera jausi naiz eta altxatzerakoan konturatu naiz ez gaudela liburutegian. Kalean gaude; baina ez dakit non, inoiz ez naiz hemen egon.

- Ondo zaudete guztiok? - galdetu dut lagunak lurrean ikusterakoan.
- Bai. - erantzun didate laurak batera.
- Non gaude? - dio Anderrek.
- Alemanian. - argitaratu digu Nikolek.
- Nola dakizu? Hemen egon al zara noizbait? - galdetu dio Anderrek.

- Gure buruen gainean herrialdearen bandera daukagulako. Baina bai, hemen egon naiz birritan baina ez dago gogoratzen nuen moduan.

- Nola heldu gara hona? - galdetu dut ezer ulertu barik.

- Liburuak zabaldu dizun momentuan, gure gorputzak desagertzen hasi dira eta bat-batean, hemen gaude. Norbaitek daki non gertatzen den liburuko istorioa? - galdetu du Julenek zer gertatu den jakin nahaietan.

- Hartu dudanean, atzekaldean irakurri dut Alemanian gertatzen dela. - azaldu digu Anderrek.

- Hor dago koska! - ohikatu egin du Julenek zentzua aurkitzen gertatu denari. - Eneak liburua zabaldu bezain pronto, Alemanian agertu gara eta gainera, ez da Nikole gogoratzen duen bezalakoa. Agian liburuaren istorioan sartu gara.

- Hori egia bada, esan nahi du Alemanian gaubela XX. mendean. Beraz, oker ez banago, Lehen Mundu-Gudan gaude; horregaitik ez dago inor kalean eta ez dago nik gogoratzen nuen moduan. - dio Nikolek.

- Eta orain, nola bueltatuko gara liburudendara? - galdetu du Imanolek.

- Agian hemendik irteten lagundu diezagukeen objektu bat daukagu. - bururatu zait. - Begiratu zuen patsikoetan eta motxiletan.

Goztiok bilatzen hasi gara jakin ezinik, ea zerbait topatuko dugun ala ez. Lurrera begiratzerakoan, paper zati bat ikusi dut tolestuta nire oinaren alboan. Hartu eta zabaltzerakoan, hizki kurbatu batzuk ikusi ditut eta ozenean irakurtzen hasi naiz.

- Liburutik irten nahi baduzu, Anna Meyer topatu behar duzue. -

Bat-batean, goitik datorren soinua arraro bat entzuten dut. Gorantz begiratzerakoan, zerbait ikusten dut hegan egiten baina ez dakit zer den.

- Zer da hori? - galdetzen dut.

- Bomba bat da! Alde egin behar dugu hemenetik! - esan du Julenek korrikan hasi baino lehen.

Guztiok korrikan hasi gara horma baten atzean ezkutatu ahal izateko bomba jausi baino lehen. Uste dut, nahiko urrun heldu naizela korrikan. Julen nire atzetik dator eta bick makurtu egiten gara horma baten kontra. Beldur naiz eta badirudi Julen ere berdin dagoela. Izututa, bonbaren eztanda itxaroten dugu. Eztanda ondoan, gure ezkutalekutik atera gara besteak bilatzeko asmoz. Handik denbora gutxira, Imanol ikusi dugu eta berarengana hurbildu gara. Gero, Nikole heldu da baina ez dago Anderren arrasterik.

- Non dago Ander? - galdetu du Julenek izututa.

Laurak Ander deitzen hasi gara, baina ez dugu erantzunik izan.

Julen korrika batean atera da Anderren bila eta beste hirurok berdina egin dugu. Bat-batean, oihu bat entzun dut eta berehala hurbildu naiz zer gertatzen ari den ikustera. Heltzerakoan, Ander ikusten dut lurrian eztanda eta Julen bere alboan negarrez.

Berarengana hurbiltzen naiz eta Julenen alboan makurtzen naiz eta besarkatzen dut berarekin negar egiten duan bitartean.

- Enea, zer jartzen zuen atzo aurkitu zenuen paper zatian? -
galdetu du Imanolek.

Egun bat daramagu hemen. Atzo ezin izan genuen ikertzen hasi
bonbaraketaren erruz. Orain, Ander ez dago gurekin. Zoritkarrez,
atzo hiri egin zen eta denok hondoratuta gaude tristeziaz beteta.

- Liburutik irten nahi baduzu, Anna Meyer topatu beharko duzu. -
Errepikatu egin dut gaur gabean behin eta berriz burura etortzen
zidan esaldia.

- Anna Meyer... Anna Meyer... Ezaguna egiten zait izen hori...
Badakit! Liburuko idazlea da! Ez dakit nola ez naizen konturatu
lehenago - dio Imanolek.

- Bere bila joan behar gara. Baina non egon ahal da? - galdetu
du Nikolek.

- Ez dakit. Agian norbaitek ezagutzen du. Graz jendeari galdetzera -
proposatu dut.

Bi ordu daramatzagu jendea bilatzen ea Anna Meyer ezagutzen
duten galdetzeko. Bakarrik hiru pertsona topatu ditugu baina
batak ere, ez du ezagutzen bilatzen ari garen andrea.
Hurrunean, agure bat ikusi dugu. Ea Anna Meyer ezagutzen
duen galdetzera joan garenean, agureak helbide bat eman
digu.

Ordu bat eta gero, agureak eman digon helbidera heldu gara.
Etxe handi baten aurrean gaude eta atea jo dugu. Handik
gutxira, andre bat agertu da atearen beste aldean eta
etxean sartzen gonbidatu digu.

- Kaixo, Anna Meyer bilatzen ari gara eta hona etortzea esan digute. - esan diet Andreari.

- Ni naiz Anna Meyer; zertan lagundu ahal dizuet?

- Zure liburua irakurtzera joan gara eta ez dakigu nola, liburuaren barruan sartu gara. Lagundu ahal diguzu inemendik ateratzen? - eskatu dio Imandek.

- Noski baietz neska mutilak. Infusio berezi hau hartu; eta berehala agertuko zarete lehen zehundeten tokian.

- Anna, azken gauza bat. Gure lagun batek hilt egin da bonbardaketa batean. Uste duzu gurekin itzuli ahalko dela? - galdetu dio Nikolek.

- Sentitzen dut baina hori ez da posible izango. Zuen laguna hemen geratu behar da.

Tristeziak beterik, eskerak eman dizkiogu Anna Meyer-i eta infusioak hartu ditugu. Lehenago gertatu zitzaigun moduan, gure gorputzak desagertzen hasi dira eta begiek zabaltzerakoan, liburutegian gaude laurok bata besteari begira.

